

## NIRE SUSTRAIAK

– Garbi izan zaitez,
gazte,
izan zaitez garbi"
entzun bear izaten nuan nik beti.
– Zuzen ibili, gazte, ibili zuzen.
– Zu, jarri zaitez oso ta argi
gure esku jakitunetan.
– Zu, aragi - espiritua,
bene benetan, gizona, gizondu baino
obe duzu aingerutu.
(Nork ez du inoiz amets egin
amets zeruranz edo. . . utseranz?)
Orain egarriak moskortu nu,
espiritu uts, aingerutasun egarriak.
(Legortasunaren moskorra)
Ni ez naiz aingeru ta ez dut nai izan.
Nere gizakiaren sustrai bihurrak
sartu nai ditut lurrean.
Giza zikiña nire lurra da
(gogo ta gorputz, amets ta seksu,
argi ta illun nastean)
Ta dana artzen dut neretzat.
Quevedo zaharra nik dut maisua
Anton Machado, Unamuno´kin
atzo ta gaurko anaia
Ez, ez, ez ni ez naiz aingeru
Ez, ez, ez naiz ni garbia
espiritu uts bat bezela.
¡Lur zabaleko zikintasunak,
babestu nire sustraiak!
Gizona naiz ta nere barrutik
beti igongo du gizaki-ardo ilunak.
Izan leiteke ilun-zikina, izan leiteke garratza.
Baina benetan, lagun maiteok,
¡ori da nere ardoa!

**JOSE LUIS ARRIAGA**

## MIS RAICES

— sé puro, joven, sé puro,/ tenía que escuchar todos los días./ —Anda recto, joven, siempre recto./ —Tú, ponte sin reservas en nuestras manos sabias./ —Tú, materia— espíritu, hombre;/ de verdad: mejor es subir y ser un ángel/ que hundirse en la humanidad./ (¿quién no ha volado alguna vez en sueños hacia el Cielo/ o. . . hacia la nada?)/ Ahora estoy ebrio de sed, la sed de espíritu puro, de angelismo./ (Borrachera de sequía)/ No soy ángel ni lo quiero ser./ Quiero hundir en la tierra las raíces retorcidas de mi ser de hombre./ La "sucia" humanidad es mi tierra/ (alma y cuerpo, sueño y sexo, luz y oscuridad, todo en uno)./ Todo lo asumo yo como mío./ El viejo Quevedo es mi maestro y Antonio Machado y Unamuno, mis/ amigos de ayer y de hoy./ No, no, no soy un ángel./ No, no, no soy puro como el espíritu puro./ ¡Impurezas del universo, alimentad mis raíces!/ Soy hombre y de mi interior surtirá siempre/ un vino turbio de humanidad./ Puede que sea oscuro y sucio, puede que sea un vino amargo./ Pero de verdad, amigos,/ ¡ese vino es el mío!.